EBAZPENA, 2020ko uztailaren 8koa, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariarena. Honen bidez, ondoko ebazpena aldatzen da: Ebazpena, 2019ko urriaren 2koa, Hezkuntza Sailaren Langileak Kudeatzeko Zuzendariarena. Honen bidez, euskal autonomia erkidegoko maisu-maistren, musikako eta arte eszenikoetako irakasleen, hizkuntza-eskola ofizialetako irakasleen, bigarren hezkuntzako irakasleen eta lanbide heziketako irakasle teknikoen kidegoetako praktiketako funtzionarioen ebaluazioan jardungo duten kalifikazio batzordeak izendatzen dira.

2019ko urriaren 2ko ebazpenaren bitartez Euskal Autonomia Erkidegoko maisu-maistren, musikako eta arte eszenikoetako irakasleen, hizkuntza-eskola ofizialetako irakasleen, bigarren hezkuntzako irakasleen eta lanbide heziketako irakasle teknikoen kidegoetako praktiketako funtzionarioen ebaluazioan jardungo duten kalifikazio batzordeak izendatu ziren.

Gerora sortutako inguruabarrak direla, Musikako eta arte eszenikoetako irakasleen kidegoko, Hizkuntza-eskola ofizialetako irakasleen kidegoko eta Lanbide heziketako irakasle teknikoen kidegoko praktiketako funtzionarioen ebaluazioan jardungo duten Kalifikazio Batzordeetako presidentea den Pilar Antoñana Moraza andreak ezingo du jarraitu bere tokian. Hortaz, beste presidente bat aukeratuko da bera ordezkatzeko.

Horregatik guztiagatik

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Aldatzea Ebazpena, 2019ko urriaren 2koa, Hezkuntza Sailaren Langileak Kudeatzeko Zuzendariarena. Honen bidez, euskal autonomia erkidegoko maisu-maistren, musikako eta arte eszenikoetako irakasleen, hizkuntza-eskola ofizialetako irakasleen, bigarren hezkuntzako irakasleen eta lanbide heziketako irakasle teknikoen kidegoetako praktiketako funtzionarioen ebaluazioan jardungo duten kalifikazio batzordeak izendatzen dira. Aldaketa ondoko kidegoen komisioari dagokionez izango da: Musikako eta arte eszenikoetako irakasleen kidegoa, Hizkuntza-eskola ofizialetako irakasleen kidegoa eta Lanbide heziketako irakasle teknikoen kidegoa.

Bigarrena.- Roberto Sáez de Cortazar Oleaga izendatzea, Pilar Antoñana Morazaren tokian, ondoko kidegoetako Balorazio Batzordeen presidente moduan: Musikako eta arte eszenikoetako irakasleen kidegoa, Hizkuntza-eskola ofizialetako irakasleen kidegoa eta Lanbide heziketako irakasle teknikoen kidegoa.

Hirugarrena.- Balorazio Batzordeak Hezkuntza Sailaren webgunean argitaratzea: http://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/departamento-educacion.

Laugarrena.- Batzordeetako kideek Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan ezarritako abstentzio- eta errekusazio-kausak bete beharko dituzte.

Bostgarrena.- Ebazpen honen aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailaren 8a.

Langileak Kudeatzeko zuzendaria
Jon Agirre HUERGA